



## AKTA

Espediente-zk.:	Kide anitzeko organoa:
OSOKO BILKURA/2024/12	Udalbatza

BILKURAREN DATUAK	
Deialdi-mota	Ohikoa
Eguna	2024ko azaroaren 25a
Iraupena	19:00etatik 20:06ra
Tokia	Osoko bilkuren aretoa
Udalburua	Javier Gorbeña García
Idazkaria	Ziortza Guinea Gutiérrez

BILKURARA BERTARATU DIRENAK		
NAN zk.	Izen-abizenak	Bilkuran izan da
18593219L	AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ	BAI
22739258D	BEGOÑA GARCÍA LÓPEZ	BAI
18598103G	ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁN	BAI
72748486S	IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LÓPEZ DE IPIÑA	BAI
30641952H	JAVIER GORBEÑA GARCÍA	BAI
53980281V	MAIALEN BERGARA SÁEZ DE CÁMARA	BAI
72841412K	MAITE COBO BARCALA	BAI
72831885Q	MIKEL ISASMENDI TXURRUKA	BAI
72841383S	XABIER NAFARRATE CADIÑANOS	BAI

Udalburuak bilkurari hasiera eman dio, idazkariak egiaztatu ondoren organoa balioz eratu dela, eta eguneko aztergaiak aztertzeari ekin zaio.

### A) EBAZPEN-ZATIA





### Onestea aurreko bilkurako akta, 2024ko urriaren 28koa

Alkate jaunak galdetu du Udalbatzako kideren baten oharrik egin nahi dion 2024ko urriaren 28ko bilkurako aktari. Akta deialdiarekin batera banatu zen.

Inork ez du oharrik egin, eta, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 91.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, akta onetsi da.

### 612/2024 espedientea. Gorbeia Eskolako IGEk aurkeztutako mozioa, hiri-mugikortasunerako plana idazteko

<b>Aldekoa</b>	<b>Bozketa-mota:</b> aho batez
----------------	--------------------------------

Ikusi da Gorbeialdea HLHIko ikasleen gurasoen elkarteak 2024ko irailaren 24an aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez ikastetxera doazen pertsonen mugikortasun orokorra hobetzeko neurriak hartzeko eskatzen den. Udaleko osoko bilkurak, aho batez, ERABAKI DU:

1. Zigoitiko Udalak, Hirigintza Sailarekin egiaztatu ondoren, Gorbeia Eskolako Gurasoen Elkarteak (IGE) egindako azterketan jasotako bide-segurtasuna hobetzeko jarduketak burutzeko konpromisoa hartzen du, betiere Udalaren eskumenekoak badira.

2. Zigoitiko Udalak konpromisoa hartzen du 2025eko udal-aurrekontuan Hiri-mugikortasunerako Udal Plana egiteko beharrezko funtsak gehitzeko.

3. Zigoitiko Udalak konpromisoa hartzen du lursailtako jabeekin beharrezko kudeaketak egiteko, tokiko herritarrei mugikortasun-aukera seguruak eskaintzen dizkieten bide zaharrak berreskuratzeko.

4. Zigoitiko Udalak Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailari eskatzen dio konponbideak bila ditzala Gorbeia Etorbideko (A-3608) ardatzean detektatutako puntu arriskutsuetarako, baita Gorbeia Eskolaren inguruan eta Gorbeia Etorbideko 5 eta 12 zenbakietako hertsiguneetan trafikoa lasaitzeko neurriak aztertu ditzala ere.

5. Zigoitiko Udalak Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailari bidaliko dio erabakia, mozio honetako laugarren puntuan adostutakoa betetzeko eskaera formalarekin batera.

### 434/2023 espedientea. Ondategiko 2. poligonoko 897. partzelari dagokionez, arau subsidiarioetan aldaketa puntuala egiteko eskaerari dagokion irizpena

<b>Aldekoa</b>	<b>Bozketa-mota:</b> aho batez
----------------	--------------------------------

Ikusi da 2023ko ekainaren 2an GERARDO ZARRABEITIA ANIS jaunak Zigoitiko Udal Plangintzako arau subsidiarioen aldaketa puntuala izapidetzeko eskatu zuela, Luis María Murua Cenea arkitektoak idatzitako proiektuarekin bat. Dokumentazio horretan proposatzen du hiri-lurzoruaren mugak eta Ondategiko 2. poligonoko 897. partzela inguratzen duten bideetan derrigorrezko lerrokadurak eta lagapenak aldatzea, zeinak Zigoitiko Udal Plangintzako arau subsidiarioetako lerrokadura, sestra eta nibelazioen planoetan jasotzen diren. Horretarako, lerrokadura berriak sortu beharko lirateke, egun hasiera batean onetsita dagoen Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren dokumentuarekin bat.

Aintzat hartu da hiri-plangintzaren ahalak udalaren izaera orokorreko hirigintza-arrazoibideei, lurralde-antolamenduko irizpideei edo interes publikoko arrazoiei erantzun behar diela, eta ez partikularren jabetza-interesei.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) artikuluan ezartzen denarekin bat etorritz, Osoko Bilkurak, aho batez, ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.** GERARDO ZARRABEITIA ANIS jaunak 2023ko ekainaren 2an aurkeztutako eskaera ezestea, ez diolako interes orokor edo publikoari erantzuten. Eskaeraren





bidez Ondategiko 2. poligonoko 897. partzelaren hirigintza-baldintzei dagozkien arau subsidiarioak aldatzeko prozedurari hasiera ematea eskatu zuen.

**BIGARRENA.** Interesdunari erabaki hau jakinaraztea, dagozkion errekursoak adierazita.

**458/2024 espedientea. Manurgako 30. zenbakiko kudeaketa-fitxan, Zigoitiko Plangintzako arau subsidiarioetan aldaketa puntuala egiteko eskaerari dagokion irizpen-proposamena**

**Aldekoa**                      **Bozketa-mota:** aho batez

Ikusi da 2024ko ekainaren 16an INVERSIONES INMOBILIARIAS OSINTXU SLk Zigoitiko Udal Plangintzako arau subsidiarioen aldaketa puntuala izapidetzea eskatu zuela, José María Alberola Arbolí arkitektoak idatzitako proiektuarekin bat. Agiri horren bidez Zigoitiko Plangintzako arau subsidiarioetatik Manurgako hiri-lurzoruaren 30. kudeaketa-fitxa (EU-5- 813, 341-A, 827-A, 826 eta 828-A katastro-partzelak) aldatzea proposatzen da. Hala, baimendutako etxebizitza-kopurua areagotu nahi da; zehazki, gutxienerako partzela 1000 m<sup>2</sup>-tik 700 m<sup>2</sup>-ra murriztu eta etxebizitza-kopurua 7tik 14ra areagotu nahi da.

Aintzat hartu da hiri-plangintzaren ahalak udalaren izaera orokorreko hirigintza-arrazoiei, lurralde-antolamenduko irizpideei edo interes publikoko arrazoiei erantzun behar diela, eta ez partikularren jabetza-interesei.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) artikuluan ezartzen denarekin bat etorri, Osoko Bilkurak, aho batez, ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.** INVERSIONES INMOBILIARIAS OSINTXU SLk 2024ko ekainaren 16an aurkeztutako eskaera ezestea, interes orokorrekoa edo publikokoa ez izateagatik. Eskaeraren bidez Manurgako EU-5ari dagozkion arau subsidiarioak aldatzeko prozedurari hasiera ematea eskatu zuen.

**BIGARRENA.** Interesdunari erabaki hau jakinaraztea, dagozkion errekursoak adierazita.

**76/2024 espedientea. Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoen obretarako dirulaguntzak ukatu ostean, GOPEGIKO ADMINISTRAZIO BATZARRAK jarritako berraztertze-errekursoa ezesteko irizpena.**

**Aldekoa**                      **Bozketa-mota:** izenduna  
Alde: 5; aurka: 4; abstentzioak: 0

**Aldekoak**                      JAVIER GORBEÑA GARCÍA (EAJ- PNV)  
MAITE COBO BARCALA (EAJ-PNV)  
IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA (EAJ- PNV)  
BEGOÑA GARCÍA LÓPEZ (EAJ-PNV)  
ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁN (PP)

**Aurkakoak**                      AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ (EH BILDU)  
XABIER NAFARRATE CADIÑANOS (EH BILDU)  
MIKEL ISASMENDI TXURRUKA (EH BILDU)  
MAIALEN BERGARA SÁEZ DE CÁMARA (EH-BILDU)

**Abstentzioak**

AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ zinegotziak hitza hartu du adierazteko bere udal-taldeak errekursoa ezestearen aurka bozkatuko duela; izan ere, uste dute Gopegiko Administrazio Batzarrak aurkeztutako alegazioak bat datozela iturri berriztagarrietako energiaren erabilera sustatzeko Europako araudiarekin, eta udal-politikak helburu horretara egokitu eta Kontzejuen





ekimenak babestu beharko lituzketela.

Irizpena bozkatu da eta honako hau izan da emaitza:

- **Aldeko botoak: 5 boto**, JAVIER GORBEÑA GARCÍA (EAJ- PNV), MAITE COBO BARCALA (EAJ- PNV), IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA (EAJ- PNV), BEGOÑA GARCÍA LÓPEZ (EAJ- PNV) eta ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁNenak (PP).
- **Aurkako botoak: 4 boto**, AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ (EH BILDU), XABIER NAFARRATE CADIÑANOS (EH BILDU), MIKEL ISASMENDI TXURRUKA (EH BILDU) eta MAIALEN BERGARA SÁEZ DE CÁMARAnak (EH BILDU).
- **Abstentzioak: 0 boto.**

Ikusi da Jon Xarles Otsoa Eribeko Landa jaunak, GOPEGIKO ADMINISTRAZIO BATZARRAREN izenean, 2024ko urriaren 29an jarritako berraztertze-errekurtsua, 2024ko irailaren 20ko Osoko Bilkuraren erabakiaren aurka. Erabaki horren bidez, 2024ko kontzejuen obretarako dirulaguntzen deialdiaren baitan, autokontsumorako instalazio fotovoltaiakoak jartzeko obren dirulaguntza ukatzen zaie. 2024ko irailaren 30ean jakinarazi zitzaion errekurtsogileari, honako arrazoi hauetan oinarrituta:

- 1.- Errepikatzen dute obra Kontzejuak sustatzen duela herritarren bizi-kalitatea hobetzen duen zerbitzu publikoa garatzeko. Baieztatzen dute neurriaren bidez herritarrak ahaldundu nahi dituztela, erabakitzeko ahalmena eta argiaren fakturak merkatzeko aukera ematen zaielako, baita klima-aldaketaren aurka borrokatzeko ere.
- 2.- Adierazi dute dirulaguntza arautzen duen udal-ordenantzako 1. artikuluko 1. taldeko 3. atalean zehazten dela edozein eraikineko energia-efizientzia hobetzeko obrak lagundu daitezkeela, eta ez dagoela berariaz mugatuta kontzejuen titulartasuneko eraikinetara.
- 3.- Iturri berriztagarrietako energiaren erabilera sustatzeko 2018ko abenduaren 11ko Europako Parlamentuko eta Kontseiluaren 2018/2001 Zuzentarauan, zeina estatu kideek derrigorrez bete behar duten, 15.3 artikuluan ezartzen da toki-mailako agintariak energia berriztagarriak integratzeko eta hedatzeko xedapenak jaso beharko dituztela, baita industria-, merkataritza- eta bizitoki-eremuak planifikatu, diseinatu, eraiki eta berritzen dituztenean ere, energia autokontsumitzeko eta komunitate berriztagarriak sortzeko. Alegatu dute arau horretako 21.5 artikuluan adierazten dela energia berriztagarrien autokontsumitzaileen instalazioak hirugarren baten jabetzakoak izan daitezkeela, edo instalazioa eta funtzionamendua hirugarren batek kudea ditzakeela, neurketa eta mantentze-lanak barne. Aipatzen dute zuzentzari horretan toki-erakundeei energia-komunitateak ezartzeko laguntza emateko eskatzen zaiela.
- 4.- Alegatu dute kontzejuen obretarako dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzak berak legeriari iruzur egiten diola, Europako araudian aurreikusitako printzipio eta gidalerroak aurreikusten ez dituelako.
- 5.- Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumoari eta biltegi-eremuetan sistema tekniko berriztagarriak ezartzeari lotutako pizgarri-programak egikartzeko autonomia-erkidegoei laguntzak zuzenean ematea onesten duen 2021eko ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretua aipatzen dute, baita Energiaren Euskal Erakundearen zuzendari nagusiaren 2021eko irailaren 22ko Ebazpena ere. Horien arabera, Europako araudiaren izaerari jarraikiz, energia-komunitateen sustapen-jarduerak bultzatzen dituzte, eta azpimarratzen dute araudi horiek udal-ordenantza baino maila goragokoak direla, eta, hortaz, udal-ordenantzak Europakoekin bat egin behar duela.
- 6.- Ondorioztatu dute Osoko Bilkurak laguntza ukatzeko erabakia, zuzenbidearen arabera, ez datorrela bat udal-ordenantzaren berezko izaerarekin, ezta Europako, estatuko eta autonomia-erkidegoko gainerako arauekin ere.

Bidezkoa da berraztertze-errekurtsua ezatea, honako oinarri hauekin bat:





1.- Kontzejuei dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantzaren 1. artikularekin bat, kontzejuek sustatutako obrak diruz lagunduko dira herritarren bizi-kalitatea hobetzeko zerbitzu publikoak garatzen dituztenean. Zehaztu egiten da 1. taldean egungo eraikinen energia-efizientzia hobetzea xede du obrak izango direla diruz lagun daitezkeenak.

Hortaz, dirulaguntzaren onuradun izateko bete behar diren hiru premisa daude gutxienez:

- Kontzejuak sustatutako obra izatea.
- Herritarren bizi-kalitatea hobetzen duen zerbitzu publikoa emateko helburua izatea.
- Egungo eraikinen energia-efizientzia hobetzera bideratuta egotea.

Eskatutako obra Kontzejuak sustatzen duen arren, ez dira betetzen obrak diruz lagundu ahal izateko gainerako nahitaezko baldintzak.

Lehenik eta behin, aztertu behar da Gopegiko Kontzejua, energia-komunitate bati energia elektrikoa emateko instalazio fotovoltaikoa finantzatzu gero, benetan zerbitzu publiko bat eskaintzen ari den, edo, kontrara, sustatzeko jarduketa bat egiten ari den.

Tradizionalki arlo pribatuko administrazio-ekintzako moduak zerbitzu publikoko jardueraren, sustapen-jardueraren eta polizia-jardueraren barruan sailkatu dira. Sustapen-jarduerak dira administrazioak partikularrentzako jarduerak, establezimenduak edo aberastasunak sustatzen dituzten horiek, behar publikoak asetzen badituzte edo erabilera orokorrekoak badira, inor derrigortu gabe eta **ZERBITZU PUBLIKOAK sortu gabe**. Sustapen-tekniken bidez ez da derrigortzen, ez jarduera pribatua ordezkatzeko; aitzitik, partikularrak konbentzitzean datza, interes orokorrak lortzeko apropostzat jotzen diren ekintzak gauza ditzaten.

Kasu honetan, Gopegiko Administrazio Batzarraren helburua da klima-aldaketari aurre egitea eta herritarrentzako onura sozioekonomikoak sortzea. Hortaz, herritarren ekimen partikularra sustatu nahi da, eta, ondorioz, herritarren ekimena izango da ingurumenaren eta gizartearen arloko helburuak asetzen dituen energia-komunitatearen bidez.

Espainiako esparru juridikoan, energiaren arloko eta ekonomia suspertzeko beste eremu batzuetako neurriak onesten dituen ekainaren 23ko 23/2020 Errege Lege Dekretuan, Sektore Elektriokoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen hainbat artikuluren aldaketaren bidez, honela definitzen dira Energia Berriztagarrien Komunitateak: "parte-hartze ireki eta boluntarioan oinarritzen diren erakunde juridikoak, autonomoak eta bazkideek kontrolatuak. Bazkideak erakunde juridiko horien jabetzakoak diren energia berriztagarrien proiektuen inguruan egon eta haien garatu beharko dituzte. Bazkideak pertsona fisikoak, ETEak edo tokiko agintariak izan beharko dira, udalerrikoak barne, eta horien helburu nagusia izango da bazkideei edo lan egiten duten tokiko eremuei ingurumen, ekonomia edo gizartearen arloan onurak ematea, eta ez finantza-irabaziak".

Hortaz, energia-komunitatea pertsona juridiko berezia da, interes orokorra asetzen duena, klima-aldaketa arintzen laguntzen baitu. Administrazio Batzarraren helburua da, eta bere eskumenen alorrean jarduten ari den baloratu gabe, ingurumena hobetzen laguntzeko komunitatea sortzea sustatu nahi duen administrazioa izatea.

Administrazio Publikoen energia-jasangarritasunaren arloan sartzen den sustapen-jarduera hau Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 44. artikuluan jasotzen da. Honela dio hitzez hitz: "*administrazio publikoek, beren eskumenen eremuan, neurri gehigarri batzuk hartuko dituzte aurrezpen eta efizientzia energetikoa sustatzeko eta babesteko, eta bizitegi-eraikin berrietan energia berriztagarriak ezartzeko*".

Arrazoiak ikusita, ondorioztatu dugu Gopegiko Administrazio Batzarra sustapen-jarduera bat garatzen ari dela, ez zerbitzu publikoko jarduera. Ondorioz, jarduketa hori ezin da kontzejuetako obrak diruz laguntzeko ordenantza arautzailearen arabera finantzatu.

2.- Halaber, kontzejuentzako dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzari dagokionez Udalaren interpretazioa defendatzen dugu, zehazki, diruz lagunduko diren obrak "egungo





eraikinen energia-efizientzia hobetzera bideratutako obrak” direla definitzen denean; izan ere, ulertzen dugu obra horiek kontzejuaren titulartasuneko eraikinei eragiten dietela soilik, ordenantzaren 1. artikularekin bat, kontzejuak emandako zerbitzu publikoei ekarpena egiten dieten obrak soilik finantzatzen direla aintzat hartuta.

Toki-erakundearen Ondasunen Erregelamenduaren 2. artikularekin bat, jabari publikoko ondasunak dira erabilera edo zerbitzu publikoetarako erabiltzen direnak. Hortaz, zerbitzu publiko baterako erabiltzen diren eraikinak jabari publikoko ondasunak dira, eta, ondorioz, titulartasun publikokoak dira. Arrazoiketa horretatik ondorioztatu dezakegu diruz lagun daitezkeela zerbitzu publikoak ematen dituzten jabari publikoko ondasunetan energia-efizientzia hobetzeko obrak.

Udal-arkitektoaren 2024ko ekainaren 12ko txostenaren arabera, Gopegiko Administrazio Batzarrak eskatutako autokontsumorako instalazio fotovoltaikoak jartzeko obrak 455 Wp-ko 297 panelek osatzen dituzte. Horiekin, guztira, 135.135 Wp lortzen dira, hau da, kontzejuetako ekipamenduek behar dutena baino askoz potentzia handiagoa.

Datu horiek eta Administrazio Batzarrak aukerako berraztertze-errekurtsoan adierazitako asmoa aintzat hartuta, ondorioztatzen da energia elektrikoaren ekoizpenaren azken helburua ez dela egungo kontzejuko eraikinen energia-efizientzia hobetzea, baizik eta beste erabilera eta helburu batzuk. Azken horiek ezin dira finantzatu, Kontzejuetako obrak diruz laguntzeko oinarri arautzaileekin bat.

3.- Horrez gain, alegatu da kontzejuetako obrak diruz laguntzeko ordenantza arautzailea legez kontrakoa dela maila goragoko araudia ez betetzeagatik. Horri dagokionez, adierazi behar da ordenantza horretako agindu batek ere ez duela araudia urratzen. Aitzitik, haren helburuak betetzen laguntzen du, kontzejuetako eraikinetan energia berriztagarriak hedatzea sustatzen duten neurriak aurreikusten baititu. Ordenantzaren irismenetik kanpo daude ingurumen-jasangarritasunari buruzko Europako, estatuko eta autonomia-erkidegoetako araudietan ezarritako ingurumen-helburuak betetzera bideratutako beste udal-neurri batzuk.

Ikusi dira azaldutako zuzenbideko oinarriak eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.j) artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik, osoko bilkurak, gehiengoz, **ERABAKI DU**:

**LEHENENGOA.** Ezestea GOPEGIKO KONTZEJUAK 2024ko irailaren 20an osoko bilkuraren erabakiaren kontra jarritako aukerako berraztertze-errekurtsoa. Erabaki horren bidez, 2024ko kontzejuen obretarako dirulaguntzen barnean, autokontsumorako instalazio fotovoltaikoko obretarako dirulaguntza ukatzen zaie, azalpenen atalean azaldutako arazoietan oinarrituta, erabakia zuzenbidearen arabera dela irizten delako.

**BIGARRENA.** Erabaki hau GOPEGIKO KONTZEJUARI jakinaraztea, dagozkion errekurtsoak adierazita.

Idazkariak adierazi du ulertzen duela alderdi politikoen artean ikuspegi politiko ezberdinak egotea, eta adierazpen politikoak egin ditzaketela. Dena den, zinegotzietan jakinarazi die beren botoaren arduradunak direla, eta kontabilitate-erantzukizuna ere ekar lezakeela. Azaldu du kontzejuak emateko prozedura arautua dela, eta, idazkariak egindako interpretazio juridikoko irizpidearekin desadostasuna dagoenean izan ezik, indarrean dagoen araudiarekin bat ebatzi behar dela.

## 568/2024 espedientea. 2025 urterako zergadunen egutegiari buruzko irizpena.

**Aldekoa**

**Bozketa-mota:** aho batez

Aintzat hartu da oso komenigarria dela Udalak behar besteko aurrerapenez zehaztea zergak borondatez ordaintzeko zergadunei emango dizkien epeak. Horiek aldi-aldi kobratzen





dira eroldaren bidez. Izan ere, batetik, administrazioa bera behartzen du epe jakin batzuk betetzera, espedienteak osorik egin eta izapidetzeko, baita horiek onesteko, bidaltzeko eta Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko ere; eta, bestetik, zergadunei bermea ematen die, une oro eta behar besteko aurrerapenez baitakite noiz ordaindu behar dituzten Udalak eskatzen dituen zergak eta ordainarazpenak.

Egutegia zehazteak, gainera, sortuko dituzten kobrantza-fluxuen zenbatespena egiten lagunduko digu, baita errolda bakoitzean dauden helbideratzeak, erroldaren zenbatekoak eta kontzeptu horiengatik aurreko ekitaldietan egon ziren diru-sarrerak ezagutzen ere. Hala, Diruzaintzako Aurrekontua neurri batean egitea ahalbidetuko da, Udalaren kobrantzen eta ordainketen sarrerak eta irteerak (fluxuak) ahalik eta gehien doitzeko.

Zerga-egutegiarekin diru-sarriren aldi baterako banaketan eragingo da, diru-sarriren fluxuak arautzen baitira eta, aldi berean, ekitaldian zehar zerga-presioa murriztuko baita.

Ikusi dira adierazitako aurrekariak eta, osoko bilkurak, aho batez, **ERABAKI DU:**

**LEHENENGOA.** 2025 ekitaldirako zergadunen egutegia onestea. Eranskin modura gehitu da.

**BIGARRENA.** ALHAOn eta Udaleko iragarki-taulan argitaratzeko agintzea, zabaldu eta ezagutzera emateko.

**HIRUGARRENA.** Alkate-udalburuari eskumena ematea egutegi hau alda dezan, arrazoi teknikoak daudenean (behar bezala justifikatuta) eta baliabide ekonomikoak adierazitako egunetan kudeatzea eragozten dutenean. Egoera horren berri emango zaie interesdunei behar besteko aurrerapenez.

**ERANSKINA:**

IMPUESTO ZERGA	PERIODO EN VOLUNTARIA BORONDATEZKO EPEA	FECHA COBRO RECIBOS DOMICILIADOS HELBIDERATUTAKO ORDAINAGIRIAK KOBRATZEKO DATA
IMPUESTO SOBRE VEHÍCULOS DE TRACCIÓN MECÁNICA TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN ZERGA	01-03-2025 – 30-04-2025	Primeros de abril // Apirilaren hasieran
IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES DE NATURALEZA URBANA Y DE CARACTERÍSTICAS ESPECIALES KALE-ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA	01-05-2025 – 30-06-2025 01-09-2025 – 31-10-2025	Primer plazo (50% cuota) – Primeros de junio // Lehenengo epea (kuotaren %50a) – Ekainaren hasieran Segundo plazo (50% cuota) – Primeros de octubre // Bigarren epea (kuotaren %50a) – Urriaren hasieran
IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES DE NATURALEZA RÚSTICA LANDA HIGIEZINEN ZERGA	01-05-2025 – 30-06-2025	Primeros de junio // Ekainaren hasieran
TASA DE RECOGIDA DE BASURAS ZABOR-BILKETAREN TASA	01-05-2025 – 30-06-2025	Primeros de junio // Ekainaren hasieran
CANON DE GANADERIA ABELTZAINZA-KANONA	01-06-2025 - 31-07-2025	Primeros de julio // Uztailaren hasieran
ROTUROS LANDAK	01-06-2025 - 31-07-2025	Primeros de julio // Uztailaren hasieran
IMPUESTO SOBRE ACTIVIDADES ECONÓMICAS JARDUERA EKONOMIKOEN ZERGA	01-11-2025 – 31-12-2025	Primeros de diciembre // Abenduaren hasieran
PISCINAS IGERILEKUAK	01-06-2025 – 31-07-2025	Para abonos de años anteriores en los que la persona interesada haya autorizado su renovación automática para años sucesivos -- Primeros de junio // Aurreko urteetako abonamenduetarako, baldin eta interesdunak datozen urteetarako berritze automatikoa baimendu badu. - Ekainaren hasieran  Para nuevos abonos del año, se presentará, junto con la solicitud, la autoliquidación de la tasa y justificante de pago. // Urteko abonamendu berrietarako, eskabide-orriarekin batera, tasaren autolikidazioa eta ordainagiria aurkeztu behar dira.
HUERTOS BARATZAK	01-03-2025 – 30-04-2025	Primeros de abril // Apirilaren hasieran
COLONIAS DE VERANO Y OTROS CURSOS UDALEKUAK ETA BESTE IKASTARO BATZUK	Se presentará, junto con la solicitud, la autoliquidación de la tasa y justificante de pago. // Eskabide-orriarekin batera, tasaren autolikidazioa eta ordainagiria aurkeztu behar dira.	
CURSOS CENTRO SOCIOCULTURAL ZENTRO SOZIOKULTURALEKO IKASTAROK	Se presentará, junto con la solicitud, la autoliquidación de la tasa y justificante de pago. // Eskabide-orriarekin batera, tasaren autolikidazioa eta ordainagiria aurkeztu	





behar dira.

**ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA**

**Finantza-erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak:**

**Ordaintzeko lekuak:**

- Kutxabankaren eta Laboral Kutxaren bulegoetan, likidazioa aurkeztuz.
- Internet bidez, web orri honetan: [www.zigoitia.eus](http://www.zigoitia.eus) (Nire ordainketa)
- Banku-txartelaren bidez, udal bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.

**Finantza-erakundeetan helbideratutako ordainketak:**

Zigoitiko Udalak zuzenean kudeatuko du ordainketa, helbideratu den finantza-erakundearen kontuan.

**INFORMAZIOA, ZERBITZUAK ETA GESTIOAK**

Udaletxean. Telefonoa: 945 464041. Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara

Faxa: 945 464052, e-mail: [zigoitia@zigoitia.eus](mailto:zigoitia@zigoitia.eus)

**AHOLKUAK**

Banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna jakinarazpenetarako etxebizitzaz aldatu bada, Zigoitiko Udalarri jakinaraziko zaio, aurrez aurre edo egoitza elektronikoa bidez: <https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus>.

**BETEARAZPEN EPEA**

Araututako epea bukatu eta hurrengo egunean hasten da eta betearazte-errekarguak, premiamenduzkoak eta ohiko premiamenduzkoak ordaindu beharko dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek adierazitako epeetan.

**LUGAR Y FORMA DE PAGO**

**Pagos no domiciliados en entidades financieras:**

**Lugares de pago:**

- En oficinas de Kutxabank y Laboral Kutxa, mediante presentación de la liquidación.
- A través de Internet en la página web: [www.zigoitia.eus](http://www.zigoitia.eus) (Mi pago)
- Mediante tarjeta bancaria, en las oficinas municipales, de lunes a viernes, de 9:00 a 14:00 horas.

**Pagos domiciliados en entidades financieras:**

El Ayuntamiento de Zigoitia gestionará directamente el cargo en las cuentas de las entidades financieras en las que se haya domiciliado el pago.

**INFORMACIÓN, SERVICIOS Y GESTIONES**

En el Ayuntamiento. Teléfono: 945 464041. De lunes a viernes, de 9:00 a 14:00 horas

Fax: 945 464052, email: [zigoitia@zigoitia.eus](mailto:zigoitia@zigoitia.eus)

**RECOMENDACIONES**

Las altas o modificaciones de domiciliaciones bancarias, así como los cambios de domicilio a efectos de sucesivas notificaciones, deberán tramitarse en el Ayuntamiento de Zigoitia, presencialmente o a través de la sede electrónica en <https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus>.

**PERIODO DE APREMIO**

Se inicia al día siguiente de finalizar el periodo de cobro voluntario, iniciándose el procedimiento ejecutivo de apremio administrativo con aplicación del recargo que, en su caso, corresponda (artículo 28 de la Norma Foral 6/2005 de 28 de febrero, General Tributaria de Álava).

**600/2024 espedientea. Azaroaren 25a, Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela-eta eginiko erakunde-adierazpena onesteko irizpena.**

**Aldekoa**

**Bozketa-mota: aho batez**

Azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeria Matxistaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, Zigoitiko Udalak indarkeria matxistik gabeko jendarte bat eraikitzeko duen konpromisoa berretsi nahi dugu.

Era berean, nazioarteko esparru juridikoarekin bat etorriz, azpimarratu behar dugu harreman zuzena dagoela genero- arrazoiengatik diskriminazioaren eta desberdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren artean, azken hori giza eskubideen urraketatzat hartuta.

Azken urteotan aldaketa handiak gertatu dira emakumeen eta gizonen arteko harremanetan. Hala ere, eta aurrerapenak aurrerapen, komunikabideetan ikusten dugu emakumeak hil ohi dituztela eta sexu- indarkeriako kasuak titularrak direla.

Emakumeen aurkako indarkeria matxistara "ohituta" dagoen jendarte gara, eta, inpaktua eragiten badigu ere, kasu horiek existitzea normalizatu dugu. Anestesia orokorreko egoera baten aurrean gaude, eta lehenbailehen esnatu behar dugu.

Era berean, askotan ikusezinak eta isilduak izaten diren eguneroko indarkeria kontaezinak ulertzeko erantzukizuna dugu: emakumeei independentzia kentzen dien indarkeria ekonomikoa; indarkeria bikarioa, seme-alabak sufrimendu-tresna gisa erabiltzen dituen; indarkeria digitala, ingurune birtualean mehatxu, jazarpen eta xantaia egiten dituen; eta sexu-esplotaziorako emakumeen eta neskatuen salerosketa, egungo esklabotza-modu krudelenetako bat. Ezin dugu ahaztu, halaber, mendetasun kimikoaren erabilera, emakumeak zigorrik gabe bortxatuak izateko borondaterik gabeko objektu bihurtzen dituen praktika.







Jendarte gisa dugun erronketako bat benetako berdintasunaren eta feminismoak zer esan nahi duen ulertzearen aurkako jarrerei aurre egitea da. Gaur egun, feminismoaren aurkako diskurtso batzuk gairatutzat jotzen genituen, eta Arartekoak "Euskadiko nerabe eta gazteen arteko jarrera matxistak" argitaratutako azken azterlanaren bidez asaldatu duen bezala, bereziki gizon gazteek, feminismoa deserosotasuna eta ondoeza eragiten dieten mezu erradikalekin lotzen dute, "seinalatuta", "babesik gabe" eta "biktima" sentitzen direlako.

Bestalde, kezagarria da, halaber, gazte batzuek indarkeria matxista edo desberdintasuna beti gertatu izan dela adieraztea, testuinguru jakin batzuetan "saihestezina" baita. Aurreko paragrafoetan aipatutako anestesia orokorraren isla

Egoera hori ez da kasualitatea, eta ez da gertatzen kolektibo gaztea delako; aitzitik, helduok transmititzen dugunaren eta ditugun erreferenteen isla zuzena da. Helburua ez da gazteria deabrutzea, baizik eta gazteen jokabideak eta sinesmenak termometro gisa erabiltzea berdintasunaren alde egiten ari garen aurrerapenak neurtzeko, eta egungo datuak ez dira positiboak.

Arazo sozial horren benetako garrantzia zifra ofizialetan islatzen ez bada ere, 2024an 5 hilketan gertatu dira Euskal Autonomia Erkidegoan, 123 emakume eta 12 adingabe 2003tik, data horretan hasi baitziren datuak zenbatzen.

Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea gizarte osoari dagokio, matxismoa eta desberdintasuna betikotzen duten egiturak eraldatzeko ahalegin kolektibo gisa, diskurtso ukatzaileetan erortzea saihestuz, lege- garapenak gorabehera oraindik asko baitago egiteko.

Premiazkoa da lotsa egon behar duen lekuan jartzea: indarkeria erabiltzen dutenengan, ez indarkeria jasaten dutenengan.

Egoera horren aurrean, Zigoitiko Udalak konpromisoa hartu du:

1. Udala eta/edo eskualde-mailan indarkeria jasaten duten emakumeentzako programa eta baliabide espezifikokoak prestatzea.
2. Emakumeen alde agertzea eta bizi izandako indarkeria-kontakizunak zalantzan ez jartzea.
3. Aldian-aldean, errekonozimendu publikoko eta erreparazioko ekitaldiak egitea indarkeria matxistaren biktimei, banakakoei zein kolektiboek: emakumeen erresistentzia- memoria berreskuratzeko azterlanak; omenaldi-ekitaldiak; emakumeen memoria etakontakizunak komunikatzeko jardunaldiak; gazteekin sentsibilizatzeko tailerrak, etab.
4. Mugimendu feministako ordezkarekin, adituekin eta indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeen kolektiboekin eta elkarteekin lankidetzan aritzea.
5. Ikastetxeekin egiten den sentsibilizazio- eta prebentzio-lanarekin jarraitzea.

Era berean, Emakumeenganako Indarkeria Matxistaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, hainbat herritan antolatzen diren ekitaldietan parte hartzera animatzen ditugu herritarrak, gaitzespen aktiboa adierazteko.

## 521/2022 espedientea. Udala-erakinak garbitzeko kontratuaren aldaketari buruzko irizpena.

<b>Aldekoa</b>	<b>Bozketa-mota:</b> izenduna Alde: 5; aurka: 0; abstentzioak: 4
Aldekoak	JAVIER GORBEÑA GARCÍA (EAJ- PNV) MAITE COBO BARCALA (EAJ-PNV) IÑIGO GRACIANTEPARALUCETA LOPEZ DE IPIÑA (EAJ- PNV) BEGOÑA GARCÍA LÓPEZ (EAJ-PNV) ELISABETH OCHOA DE ERIBE ROMÁN (PP)
Aurkakoak	-





Abstentzioak

AINHOA FERNÁNDEZ DOMINGUEZ (EH BILDU)  
XABIER NAFARRATE CADIÑANOS (EH BILDU)  
MIKEL ISASMENDI TXURRUKA (EH BILDU)  
MAIALEN BERGARA SÁEZ DE CÁMARA (EH-BILDU)

Alkate jaunak adierazi du uda-titulartasuneko eraikinak garbitzeko zerbitzuaren kontratua honela aldatu behar dela: Gorbeia Eskola HLHIko eraikina garbitzeko zerbitzua handitu behar da 4,5 orduz astean: A006, A103 eta A102 ikasgelak garbitzeko maiztasuna aldatu da eta astero garbitu beharko da; izan ere, musika-eskolako birgaitze energetikoko obren ondorioz musika-eskolako ikasleak eta irakasleak espazio horiek erabili behar dituzte. Halaber, garbiketa-zerbitzua modulu multzoko eraikinean ere eskainiko da, 0,5 orduz astean, 11 eta 15 urte arteko nerabeentzako Gazteleku udal-zerbitzua ematen den gela garbitzeko; izan ere, erabiltzaileak adingabeak dira eta espazioa erabili ahal izateko baldintza higieniko egokiak mantendu behar dira.

Ainhoa Fernández Domínguez zinegotziak, EH BILDUko udal-taldearen izenean, adierazi du abstenitu egingo direla, langileen lan-ordutegiari dagokionez lan-gatazka dagoelako eta oraindik argitu egin behar delako. Alkate jaunak erantzun dio eskolako espazioak ikastorduetatik kanpo garbitu behar direla eta enpresa kontratista dela, espazioen erabilerak aintzat hartuta, langileen artean lanaren banaketa zehazteko arduraduna.

Batzarrak, aho batez, aldeko irizpena eman du, ondoren Udalbatzak onetsi dezan.

2022ko urriaren 10ean, udal-titulartasuneko eraikinak garbitzeko zerbitzu-kontratuaren lizitazioa argitaratu zen kontratatzailearen profileen.

Ikusi da Udalbatza honen Osoko Bilkurak 2023ko otsailaren 20an hartutako erabakia, zeinaren bidez udal-titulartasuneko eraikinak garbitzeko zerbitzuen kontratua SAMSIC IBERIA SLU enpresari adjudikatzea onartu zen, 339.942,24 euroko zenbatekoan, BEZa barne, 2 urteko aldirako: 2023ko martxoaren 21etik 2025eko martxoaren 21era.

2023ko uztailaren 27an, dirulaguntza bat eman zitzaion Udal honi musika-eskolaren eraikinaren birgaitze energetikoko obra gauzatzeko, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren Berroneratze eta Erronka Demografikoaren Programaren esparruan erronka demografikoko udalerrietan energia garbiko proiektu berezietarako inbertsioetarako laguntzen deialdiaren kargura (DUS 5000 programa).

Ikusi da Udalbatza honen Osoko Bilkurak 2024ko urtarrilaren 31n hartutako erabakia, zeinaren bidez CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS SA enpresari adjudikatu zitzaion musika-eskolaren eraikinaren birgaitze energetikoaren proiektua idazteko eta obra gauzatzeko kontratua.

Ikusi da Udalbatzaren Osoko Bilkurak 2024ko irailaren 20an hartutako erabakia, zeinaren bidez udal-eraikinak garbitzeko zerbitzuen kontratua aldatzea onartu zen, zehazki, musika-eskolaren eraikinean zerbitzua kentzea (hileko zenbatekoa: 780,30 €, BEZa barne) eraikin horren birgaitze energetikoko obraren ondorioz jendearentzat itxita zegoen bitartean, hau da, 2024ko urriaren 1etik obra amaitu eta eraikina martxan jarri arte.

Ikusi da Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 205.2.b) artikuluan xedatutakoa, gerora sortutako inguruabarren ondorioz administrazio-baldintza partikularren agirian aurreikusi gabeko kontratu-aldaketei (kontratuaren lizitazioa egin zen unean aurreikusi ezin zirenak) dagokienez.

Ikusi da Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 204. artikulua, administrazio-baldintza partikularren agirian aurreikusitako aldaketei buruzkoa.

Ikusi da administrazio-baldintza partikularren agiriaren hogeita zazpigarren klausula, aurreikusitako kontratu-aldaketei buruzkoa. Honako hau dio hitzez hitz: *“Berariaz aurreikusten da, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 204. artikuluekin bat etorritz, kontratua betearazten den bitartean haren xedea aldatzeko aukera, honako zehaztapen hauen arabera:*

**a) Inguruabarrak:**

— *Kontratu honetan barne hartutako udal-eraikinetako gela batzuen edo guztien erabilerak aldatzea.*





— Kontratu honetan sartuta ez dauden udal-titulartasuneko beste eraikin batzuk erabiltzen hastea.

— Kontratu honen xede diren udal-eraikinetakoren baten erabilera bertan behera uztea.

**b) Aurreikusitako aldaketen irismena:**

— Garbiketa-lanak edo maiztasunak handitzea, gutxitzea edo aldatzea, preskripzio teknikoen agirian aurreikusitakoekin alderatuta.

— Kontratuaren xede diren garbiketa-zerbitzuak gehitzea, udal-eraikin berriak erabiltzen hastearen ondorioz.

— Kontratuaren garbiketa-zerbitzuak gutxitzea, preskripzio teknikoen agirian jasotako udal-eraikinen bat erabiltzeari uztearen ondorioz.

**c) Aldaketak kontratuaren prezioaren zein portzentajeri eragin ahal dion gehienez: % 10.”**

Ikusi da espedientean jasota dagoen txosten juridikoa. Honako hau dio:

**“A) birgaitze energetikoko obra hasi dela-eta musika-eskolaren eraikina ezin erabiltzearen ondorioz Gorbeia Eskola HLHIn garbiketa-zerbitzuaren ordu-kopurua handitzeko kontratu-aldaketari dagokionez.**

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (aurrerantzean, SPKL) 203.2 artikuluan, kontratua aldatzeko ahalmenari buruzkoan, ezartzen du kontratazio-organismoek egindako administrazio-kontratuak indarrean dauden bitartean aldatu ahalko direla administrazio-baldintza partikularren agirian hala aurreikusi denean, 204. artikuluan ezarritako modu eta baldintzetan, edo, salbuespen gisa, agirian aurreikusita ez dagoen aldaketa bat egin behar denean, betiere 205. artikulua ezartzen dituen baldintzak betetzen direnean.

205. artikulua administrazio-baldintza partikularren agirian aurreikusi gabeko kontratu-aldaketen hiru kasu desberdin jasotzen ditu eta baldintzak ezartzen ditu:

- Hasieran kontratatutako zerbitzuei zerbitzu gehigarriak gehitu behar zaizkienean (205.2.a art.).

- Lizitazioaren unean aurreikusi ezin zitezkeen eta gerora sortu diren gorabeheretatik etorri denean indarrean dagoen kontratu bat aldatzeko beharra (205.2.b) art.).

- Aldaketak funtsezkoak ez direnean (205.2 c) art.).

Kontratuaren lizitazioa egin zen unean aurreikusi ezin zitezkeen eta gerora sortutako gorabeheren ondoriozko kontratu-aldaketetarako 205.2.b) artikulua ezartzen dituen baldintzak hiru dira:

- Administrazio arduratsu batek aurreikusi ezingo zituen inguruabar batzuetatik etortzea aldaketaren beharra.

- Aldaketak kontratuaren izaera orokorra ez aldaraztea.

- Kontratuaren aldaketak kontratuaren diru-zenbatekoan dakarren aldaketak ez gaintitzea, kontratuaren aldaketa horrekin bakarrik edo artikulua honen arabera adostutako beste aldaketa batzuekin batera, hasierako prezioaren ehuneko 50 BEZik gabe.

Kontratu-aldaketa hau, txosten honen aurrekarietan adierazi den bezala, erronka demografikoko udalerrietan energia garbiko tokiko proiektu berezietarako DUS 5000 programako dirulaguntza bat ematearen ondorio da, musika-eskolaren eraikinaren birgaitze energetikoko obra egiteko. Dirulaguntza hori udal-eraikinak garbitzeko zerbitzuen kontratua lizitatu ondoren eman zen, eta 2022an lizitatzeko zerbitzu-kontratua prestatu zenean ezin zen jakin emango zenik eta obra hori egingo zenik.

Beraz, SPKLren 205.2.b) artikulua gerora sortutako inguruabarren ondoriozko kontratu-aldaketetarako ezartzen dituen hiru baldintzak betetzen dira: lehenik, udal honek ezin zuen aurreikusi, EBk COVIDaren pandemiaren ondorio negatiboak arintzeko emandako laguntzak zirela-eta, Estatuak laguntza-programa bat ezarriko zuela Berroneratzeko eta Erronka Demografikoaren





Programaren esparruan erronka demografikoko udalerrietan energia garbiko tokiko proiektu berezietan inbertsioak egiteko (DUS 5000 programa). Bestetik, egin nahi den kontratu-aldaketak ez du kontratuaren izaera aldatuko, eta, azkenik, aldaketaren zenbatekoa ez da **70.236 €**-tik gorakoa (urtebeterako kontratuaren hasierako zenbatekoa zen 140.472 €-ren % 50, BEZik gabe); izan ere, zerbitzu-prestazioaren urtebeterako kontratu-aldaketaren zenbatekoa (9 hilabete, irailaren bigarren hamabostalditik ekinaren lehenengo hamabostaldira, musika-eskolaren eskola-ikasturtearekin bat) honako hau litzateke:  $4,5 \text{ h/aste} \times 4,3 \text{ aste/hilabete} = 19,35 \text{ h/hilabete} \times 29,996744 \text{ €/ordu}$ , BEZa barne  $\times 9 \text{ hilabete} = \mathbf{5.223,93 \text{ €/urte, BEZa barne}}$ .

Kontratu-aldaketa honek 2024ko urriaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, musika-eskolako ikasleen ikasturtearen hasieratik eman behar baita garbiketa-zerbitzu zabaldua.

**B) 11 eta 15 urte bitarteko nerabeei zuzendutako gazteleku zerbitzua dagoen aretoa garbitzeko modulu-multzoko eraikinean garbiketa-zerbitzua emateko orduak gehitzeko kontratua aldatzeari dagokionez.**

Ikusi da administrazio-baldintzen agiriaren hogeita zazpigarren klausula, aurreikusitako kontratu-aldaketei buruzkoa. Honako hau dio: "Berariaz aurreikusten da, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 204. artikuluaekin bat etorriz, kontratua gauzatzen den bitartean haren xedea aldatzeko aukera, honako zehaztapen hauen arabera:

**a) Inguruabarrak:**

- Kontratu honetan barne hartutako udal-eraikinetako gela batzuen edo guztien erabilerak aldatzea.

(...)

**b) Aurreikusitako aldaketen irismena:**

- Garbiketa-lanak edo maiztasunak handitzea, gutxitzea edo aldatzea, preskripzio teknikoan agirian aurreikusitakoekin alderatuta.

(...)

**c) Aldaketak kontratuaren prezioaren zein portzentajeri eragin ahal dion gehienez: % 10".**

Aurreko artikuluan aurreikusitakoa ikusita, SPKLren 204. artikulua, administrazio-klausula zehatzen agirian aurreikusitako aldaketei buruzkoa. Horren arabera, herri-administrazioen kontratuak aldatu ahal izango dira indarrean dagoen bitartean, hasierako prezioaren % 20ra arte gehienez, baldintza-agirian aukera hori aurreikusita dagoenean.

Atal honetan egin nahi den kontratu-aldaketa administrazio-baldintza partikularren agirian aurreikusita dago, eta modulu-multzoko eraikinaren tamaina handiagoko aretoaren erabilera aldaketari erantzuten dio; izan ere, bertan kokatu da 11-15 urteko nerabeentzako gazteleku udal-zerbitzua, eta beharrezkoa da espazioa higiene-baldintza onenetan mantentzea, erabiltzaileak adingabekoak baitira.

Gazteleku udal-zerbitzua urtean 8 hilabetez ematen da (urriaren 1etik maiatzaren 30era, ostiraletan 18:00etatik 21:30era eta larunbatetan 18:00etatik 20:00etara).

Ikusi da atal honetan egin nahi den kontratu-aldaketaren zenbatekoak ez duela adjudikazio-prezioaren (BEZa barne) % 10 gainditzen, agiriak aurreikusten duen bezala, hau da, **16.997,11 €** (169.971,12 €-ren % 10, BEZa barne); izan ere, urtebeterako (8 hilabeteko prestazioa) kontratu-aldaketaren zenbatekoa honako hau izango litzateke:

$0,5 \text{ h/aste} \times 4,3 \text{ aste/hilabete} = 2,15 \text{ h/hilabete} \times 29,996744 \text{ €/ordu}$ , BEZa barne  $\times 8 \text{ hilabete} = \mathbf{515,94 \text{ €, BEZa barne}}$ .

**ONDORIOA**

Azaldutako guztiagatik, bidezkoa da kontratuaren aldaketa onestea, hau da, Gorbeia Eskola HLHLren eraikinean garbiketa-zerbitzua zabaltzea, astean 4,5 orduz, txosten honetan azaldutako arrazoiengatik eta SPKLren 205.2.b) artikulua kontratuaren lizitazioa egiten den unean sortu diren eta aurreikusi ezin diren inguruabarrak direla-eta administrazio-baldintza partikularren agirian





*aurreikusi gabeko kontratu-aldaketetarako ezarritako baldintzak betetzeagatik.*

*Era berean, bidezkoa da kontratuaren aldaketa onestea, hau da, modulu-multzoko eraikinean garbiketa-zerbitzua zabaltzea, astean 0,5 orduz, azaldutako arrazoiengatik, kontratuaren administrazio-baldintza partikularren agirian berariaz aurreikusita dagoelako eta agirian ezarritako baldintzak betetzen direlako.*

*Bi kontratu-aldaketen hilabeteko zenbatekoa 644,93 € da, BEZa barne.*

*Kontratu-aldaketa horien iraupenari honako hau izango da: lehenengo kasuan, Zigoitiko musika-eskolaren eraikineko obra amaituta ez dagoen bitartean eta eraikin horretan irakaskuntza-jarduera berriz egin ahal den bitartean, eta, bigarren kasuan, egungo aretoan gazteleku udal-zerbitzua ematen den bitartean eta udal-eraikinen garbiketa-zerbitzuen egungo kontratua indarrean dagoen bitartean.*

*Bi kontratu-aldaketek 2024ko urriaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak.*

Ikusi da kontu-hartzaitzak eginiko aldeko txostena, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian esleitutako eskumenen arabera, eta Osoko Bilkurak, gehiengoz, honako hau **ERABAKI DU**:

**LEHENENGOA.** Onestea, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 205.2.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, udal-titulartasuneko eraikinak garbitzeko zerbitzu-kontratua aldatzea, hau da, Gorbeia Eskola HLHIren eraikinean garbiketa-zerbitzua astean 4,5 orduz zabaltzea urte bakoitzeko irailaren 16tik hurrengo urteko ekainaren 15era arte (9 hilabete/urte), musika-eskolaren eraikinaren birgaitze energetikoko obraren eta irakaskuntza-jarduera Gorbeia Eskola HLHIren eraikinera eramatearen ondorioz; izan ere, bete egiten dira kontratuaren lizitazioa egiten den uanean sortu diren eta aurreikusi ezin diren inguruabarrak direla-eta administrazio-baldintza partikularren agirian aurreikusi gabeko kontratu-aldaketetarako SPKLn ezarritako hiru baldintzak.

**BIGARRENA.** Onestea, administrazio-baldintza partikularren agiriaren hogeita zazpigarren klausularekin bat, aurreikusitako kontratu-aldaketei buruzkoa, udal-titulartasuneko eraikinak garbitzeko zerbitzu-kontratua aldatzea, hau da, modulu-multzoko eraikina garbitzeko zerbitzua astean 0,5 orduz zabaltzea urteko urriaren 1etik hurrengo urteko maiatzaren 30era bitartean (8 hilabete/urte), 11 eta 15 urte bitarteko nerabeei zuzendutako gazteleku udal-zerbitzua ematen den aretoa garbitzeko; izan ere, agirian berariaz aurreikusita dago eta ez ditu klausula horretan ezarritako mugak gainditzen.

**HIRUGARRENA.** Onestea bi kontratu-aldaketen hileko zenbatekoa: 644,93 €, BEZa barne.

**LAUGARRENA.** Bi kontratu-aldaketek 2024ko urriaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak. Kontratu-aldaketa horien iraupena honako hau izango da: lehenengo kasuan, Zigoitiko musika-eskolaren eraikineko obra amaituta ez dagoen bitartean eta eraikin horretan irakaskuntza-jarduera berriz egin ahal den bitartean, eta, bigarren kasuan, egungo aretoan gazteleku udal-zerbitzua ematen den bitartean eta udal-eraikinen garbiketa-zerbitzuen egungo kontratua indarrean dagoen bitartean.

**BOSGARRENA.** Bere horretan mantentzea preskripzio teknikoan agirian, administrazio-baldintza partikularren agirian eta adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintza ekonomikoan jasotako gainerako baldintzak eta betebeharrak, kontratu-dokumentuak direnak.

**SEIGARRENA.** Erabaki hau SAMSIC IBERIA SL enpresa adjudikaziodunari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

**ZAZPIGARRENA.** Kontratu-aldaketa horiek argitaratzea Euskadiko Kontratazio Plataformaren Kontratatzailearen Profilean eta Kontratuen Euskal Erregistroan, dagozkien legezko ondorioak izan ditzaten.





**B) KONTROL-JARDUERA**

**448tik 496ra bitarteko dekretuen kontu ematea**

2024-0496 DEKRETUA [Ebazpena, haur-eskolan suteak detektatzeko zentrala ordezkatzeko zerbitzuen kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0495 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Zigoitiko Udalaren organigrama onesteko]

2024-0494 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gorbeialdeko Kuadrillaren alde hondakinak biltzeko eta konpostatze-guneak mantentzeko zerbitzuaren gastuaren aurrerakinaren bigarren ordainketa agintzeko]

2024-0493 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gaztefilm jaialdiaren esparruan 3 film emateko zerbitzuaren kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0492 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Bengolarra eraikina berritzeko eta zabaltzeko 30. ziurtagiria onesteko]

2024-0491 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, berdeguneen mantentze-zerbitzuaren kontratuko behin betiko bermea eta berme osagarria itzultzea onesteko]

2024-0490 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 9/2024 kreditu gehigarria onesteko]

2024-0489 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, DUS 5000 programarako musika-eskolako obraren justifikazioko kontuaren auditoretza-txostena egiteko zerbitzuaren kontratua txikia adjudikatzeko]

2024-0488 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, hirurtekoak aitortzeko]

2024-0487 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Letona eta Zaitegi udalerrietan P-231 eta P-250 telefonia-zutoinak aldatzeko obra-lizentziaren eskaera gaitzesteko]

2024-0486 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxagueneko 5. poligonoko 359. partzelan dagoen etxebizitzako leihoak eta leiho-ateak margotzeko obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0485 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Letonako 1. poligonoko 734. partzelan dagoen etxebizitzaren estalkiko itoginak konpontzeko obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0484 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko urritik abendura bitarteko kirol-jardueren zerga-bilketako errolda onesteko]

2024-0484 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2023-2027ko agintaldirako zinegotzi ordezkariak izendatzeko]

2024-0482 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, desgaitasuna duen pertsonari aparkatzeko txartela emateko]

2024-0481 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Larrinoako 3. poligonoko 423. partzelan modulua eta errai-edukiontzia jartzeko obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0480 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, TMIZn salbuespena ukatzeko]

2024-0479 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Zubiko Errota kalean populazio-unitatea aldatzeko]

2024-0478 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, obra-lizentziak emateko epeak bertan behera uzteko]

2024-0477 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gorbeia merkataritza-guneko 71. lokalean ile-apaindegi jarduera gauzatzeko aurretiazko komunikazioaren titularra aldatzeko]

2024-0476 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, egur-sortak adjudikatzea ukatzeko, 2024 baso-urtea]





2024-0475 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, ehiza-barrutiaren adjudikazioaren aurka ARMIKELO EHIZAKO KIROL KLUBAK jarritako berraztertze-errekurtsua gaitzesteko]

2024-0474 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, soberan dauden egur-sorten esakerak eta adjudikazioa gaitzesteko, 2024 baso-espeditentea]

2024-0473 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2024ko urriko nominak ordaintzea onesteko]

2024-0472 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gopegiko 6. poligonoko 1227. partzela garbitzeko azken epe luzaezina emateko]

2024-0471 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, jardueraren azalera elementuari dagokionez, egiaztapen mugatuko prozedura amaitzeko]

2024-0470 DEKRETUA Ezeztatua

2024-0469 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Gorbeako harrobietarako errepidearen zoladura egokitzeko obran (3. eta 4. faseak) arriskuak prebenitzeko kudeaketa-dokumentua onesteko]

2024-0468 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Manurga-Larrinoa izeneko 018-191-103 partzela-bidea konpontzeko obra txikiaren lizentzia emateko]

2024-0467 DEKRETUA Ezeztatua

2024-0466 DEKRETUA [Deialdiaren dekretua]

2024-0465 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, udal-aldizkaria egiteko zerbitzuaren kontratuaren 3. eta azken luzapena onesteko]

2024-0464 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, ibilgailu historikoa izateagatik trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren hobaria emateko]

2024-0463 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Etxabarri Ibiñako 6. poligonoko 660. partzelan dagoen etxebizitzan bainuontziaren ordeztutako dutxaontzia jartzeko obra txikiko lizentziaren uko egitea onesteko]

2024-0462 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2021-2022 ikasturteko dantza-programaren dirulaguntzaren zati bat itzultzea onesteko]

2024-0461 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 8/2024 kreditu gehigarria onesteko]

2024-0460 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, tratatutako zuraren neurria egindako piezak hornitzeko kontratu txikia adjudikatzeko, Gopegiko Gurutze Plazako jolas-eremuan kaltetuta daudenak ordeztzeko]

2024-0459 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Manurga udalerriko 2. poligonoko 592. partzelan hesia jartzeko obra txikiko lizentzia emateko]

2024-0458 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, 2022-2023 ikasturteko dantza tradizionalen programaren dirulaguntzaren zati bat itzultzea onesteko]

2024-0457 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Manurga udalerriko 2. poligonoko 819. partzelan dagoen egurtegiko uralita plastikoak ordeztzeko obra txikiko lizentzia emateko]

2024-0456 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Udaleko eta Zentro Soziokulturaleko aparkaleku eta lorategietako heskaiak, itzal-platanondoak eta lizarrak inautesteko zerbitzuen kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0455 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Berrikanoko 6. poligonoko 54. partzelan familia bakarreko etxebizitzari atxikitako ataripea eraikitzeko obra-lizentzia emetako epeak eteteko]

2024-0454 DEKRETUA [Ebazpena, 376 OPMn (2. fasea) saraien mugarriak berrikusteko laguntza teknikoaren kontratu txikia adjudikatzeko]

2024-0453 DEKRETUA [Deialdiaren dekretua]

2024-0452 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, lehenengo alkateorde berria izendatzeko]





2024-0451 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, katu-kolonien kudeaketa etikoko programa onesteko]

2024-0450 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, T/2024/23 kontabilitate-zerrendako ordainketak onesteko]

2024-0449 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, Berrikanoko 6. poligonoko 1023. partzelan kanpina eraikitze obra handiko lizentzia emateko]

2024-0448 DEKRETUA [Alkatetzaren Ebazpena, OJARAS KIROL KLUBAK ehiza-barrutiaren adjudikazioaren aurka jarritako berraztertze-errekurtsoa gaitzesteko]

## Alkatetzaren txostenak

### 1. Harrobietarako errepidearen zoladura egokitu eta konpontzeko obrak

Alkate jaunak jakinarazi du 3. eta 4. faseei dagokien zatiko lanak amaitzen ari direla. Margotzea falta dela dio.

### 2. Udal-etxebizitza tasatuak arautzen dituen ordenantza idaztea

Alkate jaunak jakinarazi du kontratatuta dagoela idazketa-zerbitzua eta gutxi gorabehera hilabete barru zirriborroa eginda egongo dela Batzordera eraman ahal izateko.

### 3. Gaixotasuna Gorbea mendiko behi-aziendaren artean

Alkate jaunak jakinarazi du trikomoniasiarene zenbait positibo detektatu dituztela Gorbea mendian bazkatzen diren zezenen artean, eta, horren ondorioz, udalerriko abeltzaintza-ustategiei jakinarazi zaie zezenak larreetatik kendu behar dituztela, gaixotasunaren transmisioa saihesteko.

### 4. Lehenengo lanbide-esperientzia gisa arkitekto bat kontratatzeko dirulaguntza

Alkate jaunak jakinarazi du, azken bi urteetan egin duten bezala, eta Hiri Antolamenduko Plan Orokorra eta EB Next Generation funtsek finantzatutako obrak izapidetzeak eragingo duen lanbolumena kontuan hartuta, arkitektoari beste urtebete batez hirugarren kontratazio bat egiteko asmoa zuela, lehenengo lanbide-esperientziak sustatzeko Lanbide finantzatutako programaren barruan. Hala ere, aipatu du Lanbide erantzun du agortu egin dela dirulaguntzaren aurrekontu-partida; hortaz, aurki jakinaraziko diote Udalari gaitzetsi egingo dutela dirulaguntzaren eskaera.

## C) ESKAERAK ETA GALDERAK

### Eskaerak eta galderak.

#### UDALBATZAREN OHIKO BILKURAK:

Elisabeth Ochoa de Eribe zinegotziak galdetu du ea osoko bilkurak goizez egin daitezkeen.

Maite Cobo Barcala zinegotziak esan du berak nahiago duela bilkurak arratsaldez egitea, horrela zinegotzi-lanak eta enpresa pribatuan egiten duen lana uztartzeko aukera baitu.

Xabier Nafarrate Cadiñanos zinegotziak argudiatu du, nahiz eta jende gutxi bertaraten den bilkuretar, ordutegi horrek aukera ematen diela herritarrei bertaratu eta parte hartzeko.

#### EGUZKI JAIA ANTOLATZEA:

Maialen Bergara Sáez de Cámara zinegotziak adierazi du bilerak egin direla Eguzki Jaia antolatzeko, baina gobernu-taldeak jarrera zurruna agertu duela jaiaren datei dagokienez. Aurten jai







hori bat dator Gasteizko Santiago jaiarekin, 2025eko uztailaren 25ean, eta Udalak ez du aukerarik eman ekitaldia antolatzen parte hartzen duten pertsonen erabaki zezaten komeni zen ala ez ospakizuna beste asteburu batean egitea.

Alkate jaunak erantzun du jaiaren beti ospatzen dela uztailaren hirugarren asteburuan eta bere ustez komenigarria dela data mantentzea eta urtero ez ibiltzea zein asteburu nahiago den zehazten. Argudiatu du abuztuko lehenengo asteburuan egitea ere ez dela izango herritarrak konbentzituko dituen erabakia, aintzat hartuta oporraldiaren hasierarekin edo Gasteizko jaien prestaketarekin bat etor daitekeela. Hala ere, adierazi du egiten den hurrengo bilkuran eztabaidatu dezaketela eta galde dezaketela zein musika-talde dagoen libre data desberdinetan. Hala, informazio hori aintzat hartuta hartu ahalko dute erabakia.

#### HAMAZAZPI ALDIZKARIA:

Ainhoa Fernández Domínguez zinegotziak arren eskatu du Hamazazpi aldizkarian argitaratuko diren artikuluen edukia alde aurretik jakinaraz diezaietela, aldizkaria prestatzen lagun dezaten. Alkate jaunak barkamena eskatu du, eta azaldu du Carlos Iturrioz Malaina zinegotzi ohia arduratzen zela lan horretaz, eta ahaztu zaiola zeregina berrartzea.

#### EHIZA BARRUTIA:

Mikel Isasmendi Txurruka zinegotziak galdetu du zein erabilgarritasun duen ehiza-barrutiaren elkarte adjudikaziodunak Larrinoako partzelan jarri duen edukiontzia. Alkate jaunak erantzun du edukiontzi horrek ehizakiak tratatzeko balio duela: erraiak bereizten dituzte partzela horretan dagoen foru-ontzian uzteko, eta animalien gainerako zatiak edukiontzia barruan gordetzen dituzte, ondoren haragi-enpresak eraman eta kudeatzeko.

#### Idazkaritzaren eginbidea:

*2024ko abenduaren 19ko ohiko osoko bilkuran, alkate jaunak galdetu du Udalbatzako kideren batek oharrik egin nahi dion 2024ko azaroaren 25eko aktari. Akta deialdiarekin batera banatu zen.*

*Inork ez du oharrik egin, eta, Toki Erakundearen Antolamenduari, Jardunbideari eta Araubide Juridikoari buruzko Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 91.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, akta onetsi da.*

## ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA

